

RUGBY TOUCH-ERAKO ARAUAK

Errugbi mota honek tradizionalarekiko zenbait alde ditu:

- Ez dago kontakturik, aurkaria plakatu beharrean, nahikoa da hau BI ESKUEZ ukitzea. Epaileak txistuaz adieraziko du hau gertatzen den bakoitzean.
- Ez dago konkista faserik, hau da, ez *meleerik* ezta *toucheik* ere.
- Ez da hankarekin jokatzea onartzen, ezin da baloia ostikatu.
- Ez dago postu finkorik, jokalaria guztiek betebeharrak dituzte.


Hala ere, baditu arau komun batzuk:

- Pasea beti atzeruntz egin behar da eta hau aurreruntz eginez gero edo baloia aurreruntz eroriz gero, baloiaren jabetza aldatu egingo da.

ERASOARENTZAKO ARAUAK:

- Helburua, errugbi tradizionalan bezala, aurkariaren zelaian entsegua lortzea da. <http://www.youtube.com/watch?v=MAkIaO9KrIk&feature=related>
- Baloia duen jokalaria bat bi eskuez ukitua denean, geratu eta baloia hanken azpitik pasa beharko du, segidan bere taldekide bat etorri ta jokoa jarrai dezan. http://www.youtube.com/watch?v=_Lehc0aSeGE
- Entsegua lortzeko, 6 ukitu izando ditu talde erasotzaileak, hau da, 6 jokaldi. Hauek agortutakoan, aurkaria hasiko da erasoan, azken ukitua izan den lekutik.
- Baloia aurreruntz erortzen bada, jabetza aldatu egingo da.
- Haserako sakea eta entreguen ondorengoa zelai erditik egingo da, 10m pasa behar dituen ostikoa botaz, botelasterrez. Entsegua lortu eta gero, hau gauzatu duenak aterako du.
- Baloia aldeko marraik irteten bada edo baloi duen jokalaria marra edo honen kanpoaldea zapaltzen badu, jabetza aldatu egingo da. Alboko sakea pase normal batez egingo da.

- Finalerdi eta finalaren kasuan, zelai osoan jokatuko direnez, etseguaren ondoren hagetara jaurtiko da. Hau entsegua lortu den lekuaren paretik egin behar da, jaurtitzailak nahi duen distantzia hartuz. Hau da:



DEFENTSARENTZAKO ARAUAK:

- Defentsak ezingo du aurkaria plakatu, bultzatu edota heldu, ukitu soilik.
- Ukitu bat dagoen bakoitzean, defentsak (talde osoak) 5m atzera egin beharko du. Distantzia hau marrazainek markatuko dute, horrela, defentsako talde osoa hauen parean jarri beharko da lehen bait lehen. Erasotzaileak baloia jokoan jartzean, defentsa “libre” geratuko da hurrengo jokaldirako. 5m hauek errespetatu ezean, epaieak 6 aukera gehiago emango dizkio talde erasotzaileari, hau da, adibidez, 4. jokaldia bada eta defentsak jokoz kanpo defenditzen badu, ukituen kontua zerotik hasiko da berriro.

